# Gardentasunaren eta informazio publikoa eskuratzearen betetze-mailari buruzko txostena

## 2019. urtea

2020ko uztaila

## Aurkibidea

0. Sarrera ..... 2
1. Udal gardentasunerako taldeak ..... 2
2. Publizitate Aktiboaren ebaluazioa eta/edo betetze-maila ..... 3
3. Udal Gardentasunaren Atarian gehien kontsultatutako atalak ..... 4
4. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabiltzeko eskaerak ..... 7
5. Ondorioak ..... 9
6. Bibliografia ..... 10

## 0. Sarrera

Eibarko Udalak, beste urte batez, herritarrei informazio zehatza, egiazkoa eta erabilgarria ematearen eta erakundearekiko konfiantza areagotzearen garrantziaz eta beharraz jabetuta, hirugarren urtez jarraian, gardentasunaren edo publizitate aktiboaren eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen betetze-mailari buruzko memoria egin du, Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean ezarritako printzipioetan oinarrituta.

Lege horrek 66. artikuluan jasotzen du – VI. titulua, Gobernu Irekia. Gardentasuna, datu irekiak eta herritarren parte-hartzea – "Gardentasunaren eta informazio publikoa eskuratzearen betetze-mailaren jarraipena" ri buruzko txostena urte naturaleko lehen hiruhilekoan argitaratzeko betebeharra.

Txosten horrek aztertu eta azaldu behar du, gutxienez, zenbateraino betetzen dituen Udalak publizitate aktiboko betebeharrak, gardentasun-atariko eduki kontsultatuenak eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzeari buruzko informazio guztia.

## 1. Udal gardentasunerako lantaldeak

Eibarko Udalak, 2015etik, udal-gardentasuneko talde bat du, Gobernu Irekiaren Ordezkaritzako zinegotzi arduradunak, Antolakuntza eta Langileen zuzendariak eta komunikazio eta gardentasuneko teknikariak osatua.

Besteak beste, honako eginkizun hauek ditu: udal-eremuan gardentasuna bultzatzea, herritarrei ikuspegi komunikatiboagoa eta orientatuagoa ematea Udal Gardentasunaren Atarian, prozesu horretan udal-erakunde osoa integratzea, mendeko erakundeak barne, eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea betetzen dela bermatzea.

Hain zuzen ere, eskubide hori bermatzeko eta informazio publikoa eskuratzeko eskaerak izapidetzeko, Gardentasun Batzordea sortu zen. Funtsean, publizitate aktiboaren edukiak kudeatu eta gainbegiratzeaz arduratzen diren pertsona berberek osatutako lantaldea da: Gobernu Irekiaren Ordezkaritzako arduradun politikoa, udal-idazkaria, Antolakuntza eta Langileen zuzendaria eta komunikazioko eta gardentasuneko teknikaria.

Haren zeregin nagusia da arlo, zerbitzu eta unitateetako arduradunek egindako informazio publikoko eskaerak eta balorazio-txostenak aztertzea, eta ebazpena prestatzea. Beharrezkoa den kasuetan, batzorde horrek Udaleko arlo, zerbitzu eta/edo unitateen lankidetza eskatu ahal izango du, baita mendeko erakunde autonomoena ere.

## 2. Publizitate Aktiboaren ebaluazioa eta/edo betetze-maila

Txosten honetan publizitate aktiboaren betebeharrak nola betetzen diren eta printzipio orokorrak zein puntutan dauden jasotzen da. Beste behin ere, atal honetan, Eibarko Udalaren Gardentasun Atarian 2015eko uztailetik gaur arte argitaratutako edukien balorazioa egin da.

| Gardentasun-edukien argitalpenaren batez besteko betetze-maila (LGTB eta ETEL) | ITEMAK | BAI | EZ | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| 6. artikulua. Erakunde-, antolamendu- eta plangintza-informazioa (GGBL) eta 52. artikulua. Erakunde- eta antolaketa-informazioa (ETEL) | 15 | 15 | 0 | 100 % |
| 7. artikulua. Garrantzi juridikoko informazioa (GGOLa) eta 53. artikulua. Informazio juridiko-arauemailea (ETEL) | 8 | 6 | 2 | 75 % |
| 8. artikulua. Ekonomiari, aurrekontuei eta estatistikari buruzko informazioa (GGOLa) eta 55. artikulua. Kudeaketa publikoari buruzko informazioa eta 57. artikulua. Ekonomia-, finantza- eta aurrekontu-informazioa (ETEL) | 16 | 11 | 5 | 68,75 % |
| 54. artikulua. Tokiko politika publikoei eta zerbitzu-zorroari buruzko informazioa (ETEL) | 4 | 3 | 1 | 75 % |
| 56. artikulua. Toki-erakundeetako langileei buruzko informazioa (ETEL) | 5 | 5 | 0 | 100 % |
| 58. artikulua. Interes orokorreko informazioa (ETEL) | 2 | 2 | 0 | 100 % |
| 59. artikulua. Datuak irekitzea (ETEL) | 1 | 1 | 0 | 100 % |
| 60. artikulua. Informazioa berrerabiltzea (ETEL) | 4 | 4 | 0 | 100 % |
| 61. artikulua. Gardentasunaren ataria eta kanal anitzeko sistema (ETEL) | 4 | 4 | 0 | 100 % |
| GUZTIRA | 59 | 51 | 8 | 90,97 % |

**Identifikatutako legezko betebeharren betetze-maila (2019).**

## 3. Udal Gardentasunaren Atarian gehien kontsultatutako atalak

Eibarko Udalaren Gardentasun Atariak (Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gipuzkoa Irekia plataformaren barruan dago) dituen informazio-kategoria nagusiak honako hauek dira:

- **Goi-kargudunak eta arduradunak**
- **Antolamendua, plangintza eta ondarea**
- **Herritarrekiko harremanak**
- **Informazio ekonomiko-finantzarioa**
- **Kontratuak, hitzarmenak eta diru-laguntzak**
- **Hirigintza eta herri-lanak**
- **Ingurumena**
- **Garrantzi juridikoko arauak eta informazioa**

**2019ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra erregistratutako datuak** honako hauek dira:

2019an, www.eibar.eus webguneak guztira 335.689 bisita edo saio erregistratu zituen, 171.388 erabiltzaile edo bisitari bakarrekin. 2019an 2018an baino 14.985 bisita gehiago izan ziren, hau da, % 4,67 gehiago.




Gaztelaniaz gehien ikusten diren eduki guztien artean, Gardentasunaren Ataria (www.eibar.eus/es/gobierno-abierta webgunean dago) 11. postuan dago, bai gaztelaniaz (5.387 bisita edo saio), bai euskaraz (1.665 bisita edo saio).

Dimensión secundaria | Ordenar por tipo: Predeterminado | avanzado

| Nivel de ruta de página 3 | Número de visitas a páginas | Número de páginas vistas únicas | Promedio de tiempo en la página | Porcentaje de rebote | Porcentaje de salidas |
|---|---|---|---|---|---|
| | 5.387<br>% del total: 0,61 % (879.785) | 3.406<br>% del total: 0,53 % (637.095) | 00:00:42<br>Media de la vista: 00:01:08 (-38,67 %) | 53,49 %<br>Media de la vista: 61,37 % (-12,84 %) | 16,35 %<br>Media de la vista: 38,16 % (-57,14 %) |
| 1. /transparencia-municipal/ | **3.070** (56,99 %) | 1.749 (51,35 %) | 00:00:39 | 46,41 % | 13,09 % |
| 2. /datos-abiertos/ | **593** (11,01 %) | 397 (11,66 %) | 00:00:35 | 50,98 % | 12,48 % |
| 3. /noticias/ | **521** (9,67 %) | 414 (12,16 %) | 00:01:03 | 82,05 % | 34,55 % |
| 4. /participacion/ | **307** (5,70 %) | 218 (6,40 %) | 00:01:00 | 73,81 % | 24,10 % |
| 5. /transparencia-municipal | **302** (5,61 %) | 169 (4,96 %) | 00:00:16 | 35,56 % | 10,93 % |
| 6. /home | **124** (2,30 %) | 94 (2,76 %) | 00:00:43 | 34,25 % | 31,45 % |
| 7. /derecho-a-informacion/ | **80** (1,49 %) | 65 (1,91 %) | 00:00:55 | 75,00 % | 20,00 % |
| 8. /derecho-a-informacion | **75** (1,39 %) | 66 (1,94 %) | 00:00:41 | 100,00 % | 13,33 % |
| 9. /datos-abiertos | **57** (1,06 %) | 34 (1,00 %) | 00:00:40 | 60,00 % | 24,56 % |
| 10. /@@search | **40** (0,74 %) | 33 (0,97 %) | 00:01:38 | 0,00 % | 22,50 % |

**Apartados más vistos en castellano en 2019.**

Dimensión secundaria | Ordenar por tipo: Predeterminado | avanzado

| Nivel de ruta de página 3 | Número de visitas a páginas | Número de páginas vistas únicas | Promedio de tiempo en la página | Porcentaje de rebote | Porcentaje de salidas |
|---|---|---|---|---|---|
| | 1.665<br>% del total: 0,19 % (879.785) | 1.053<br>% del total: 0,17 % (637.095) | 00:00:47<br>Media de la vista: 00:01:08 (-30,09 %) | 53,70 %<br>Media de la vista: 61,37 % (-12,48 %) | 11,53 %<br>Media de la vista: 38,16 % (-69,78 %) |
| 1. /udal-gardentasuna/ | **745** (44,74 %) | 450 (42,74 %) | 00:00:46 | 39,58 % | 6,98 % |
| 2. /albisteak/ | **258** (15,50 %) | 170 (16,14 %) | 00:01:08 | 76,74 % | 21,32 % |
| 3. /parte-hartzea/ | **256** (15,38 %) | 151 (14,34 %) | 00:00:47 | 40,00 % | 12,50 % |
| 4. /udal-gardentasuna | **119** (7,15 %) | 83 (7,88 %) | 00:00:13 | 0,00 % | 5,04 % |
| 5. /datu-irekiak/ | **81** (4,86 %) | 61 (5,79 %) | 00:01:19 | 60,00 % | 23,46 % |
| 6. /karrusela/ | **61** (3,66 %) | 35 (3,32 %) | 00:00:12 | 0,00 % | 0,00 % |
| 7. /informazio-publikoa/ | **39** (2,34 %) | 29 (2,75 %) | 00:00:59 | 22,22 % | 7,69 % |
| 8. /parte-hartzea | **21** (1,26 %) | 16 (1,52 %) | 00:01:03 | 69,23 % | 52,38 % |
| 9. /informazio-publikoa | **16** (0,96 %) | 14 (1,33 %) | 00:00:41 | 80,00 % | 37,50 % |
| 10. /logged_out | **13** (0,78 %) | 9 (0,85 %) | 00:00:33 | 0,00 % | 0,00 % |

**Apartados más vistos en euskera en 2019.**

Gaztelaniazko "Udal Gardentasuna" atalean, hauek izan ziren gehien kontsultatu ziren edukiak: Goi-kargudunak eta arduradunak; Antolaketa, Plangintza eta Ondarea; Udal Gardentasun Taldea; Informazio ekonomiko-finantzarioa; Hirigintza eta Herri Lanak; Gardentasunaren adierazleak; eta Zer da gardentasuna.

Dimensión secundaria · Ordenar por tipo: Predeterminado · avanzado

| Nivel de ruta de página 4 | Número de visitas a páginas | Número de páginas vistas únicas | Promedio de tiempo en la página | Porcentaje de rebote | Porcentaje de salidas |
|---|---|---|---|---|---|
| | 3.070<br>% del total: 0,35 % (879.785) | 1.749<br>% del total: 0,27 % (637.095) | 00:00:39<br>Media de la vista: 00:01:08 (-42,80 %) | 46,41 %<br>Media de la vista: 61,37 % (-24,38 %) | 13,09 %<br>Media de la vista: 38,16 % (-65,68 %) |
| 1. /altos-cargos-y-responsables | 488 (15,90 %) | 209 (11,95 %) | 00:00:16 | 11,32 % | 9,63 % |
| 2. /altos-cargos-y-responsables/view/1527486 | 259 (8,44 %) | 100 (5,72 %) | 00:00:47 | 75,00 % | 12,74 % |
| 3. /organizacion-planificacion-y-patrimonio | 202 (6,58 %) | 117 (6,69 %) | 00:00:31 | 10,00 % | 7,43 % |
| 4. /equipo-de-transparencia-municipal | 133 (4,33 %) | 103 (5,89 %) | 00:00:35 | 52,24 % | 43,61 % |
| 5. /informacion-economico-financiera | 121 (3,94 %) | 71 (4,06 %) | 00:00:40 | 75,00 % | 10,74 % |
| 6. /urbanismo-y-obras-publicas | 100 (3,26 %) | 52 (2,97 %) | 00:00:38 | 50,00 % | 7,00 % |
| 7. /altos-cargos-y-responsables/view/619963 | 99 (3,22 %) | 48 (2,74 %) | 00:00:32 | 0,00 % | 3,03 % |
| 8. /indicadores-de-transparencia | 83 (2,70 %) | 54 (3,09 %) | 00:02:12 | 68,97 % | 38,55 % |
| 9. /que-es-transparencia | 82 (2,67 %) | 60 (3,43 %) | 00:00:55 | 74,36 % | 45,12 % |
| 10. /altos-cargos-y-responsables/view/376651 | 81 (2,64 %) | 53 (3,03 %) | 00:01:46 | 100,00 % | 18,52 % |

**“Udal Gardentasuna” atarian atalik ikusienak gaztelaniaz 2019an.**

Euskara atalari dagokionez, eduki ikusienak honako hauek izan ziren: Antolaketa, Plangintza eta Ondarea; Gardentasunaren Adierazleak; Goi-karguak eta arduradunak; Informazio ekonomiko-finantzarioa; eta Zer da Gardentasuna.

Dimensión secundaria · Ordenar por tipo: Predeterminado · avanzado

| Nivel de ruta de página 4 | Número de visitas a páginas | Número de páginas vistas únicas | Promedio de tiempo en la página | Porcentaje de rebote | Porcentaje de salidas |
|---|---|---|---|---|---|
| | 745<br>% del total: 0,08 % (879.785) | 450<br>% del total: 0,07 % (637.095) | 00:00:46<br>Media de la vista: 00:01:08 (-31,55 %) | 39,58 %<br>Media de la vista: 61,37 % (-35,50 %) | 6,98 %<br>Media de la vista: 38,16 % (-81,71 %) |
| 1. /antolaketa-plangintza-eta-ondarea | 75 (10,07 %) | 50 (11,11 %) | 00:00:31 | 0,00 % | 1,33 % |
| 2. /antolaketa-plangintza-eta-ondarea/view/378405 | 49 (6,58 %) | 13 (2,89 %) | 00:00:33 | 0,00 % | 0,00 % |
| 3. /gardentasunerako-adierazleak | 44 (5,91 %) | 26 (5,78 %) | 00:01:42 | 0,00 % | 11,36 % |
| 4. /goi-kargudunak-eta-arduradunak | 33 (4,43 %) | 25 (5,56 %) | 00:00:06 | 0,00 % | 0,00 % |
| 5. /antolaketa-plangintza-eta-ondarea/view/376933 | 25 (3,36 %) | 17 (3,78 %) | 00:03:43 | 50,00 % | 32,00 % |
| 6. /goi-kargudunak-eta-arduradunak/view/1527486 | 25 (3,36 %) | 11 (2,44 %) | 00:02:25 | 100,00 % | 16,00 % |
| 7. /antolaketa-plangintza-eta-ondarea/view/580086 | 23 (3,09 %) | 14 (3,11 %) | 00:01:22 | 0,00 % | 8,70 % |
| 8. /informazio-ekonomiko-finantziarioa | 22 (2,95 %) | 15 (3,33 %) | 00:00:19 | 75,00 % | 13,64 % |
| 9. /zer-da-gardentasuna | 22 (2,95 %) | 13 (2,89 %) | 00:00:25 | 50,00 % | 9,09 % |
| 10. /antolaketa-plangintza-eta-ondarea/view/378405?set_language=eu | 20 (2,68 %) | 7 (1,56 %) | 00:00:16 | 0,00 % | 5,00 % |

**“Udal Gardentasuna” atarian atalik ikusienak euskaraz 2019an.**

## 4. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabiltzeko eskaerak

"Gobernu Zabalik: gardentasuna, herritarren parte-hartzea eta datu irekiak" mikrositeak "Informazio publikoa" izeneko atala du, eta bertan informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabiltzeko eskaerei buruzko estatistikak jasotzen dira. Hala, **2019an**, **3 informazio-eskaera baino ez** ziren jaso: jarraian, 2019an informazio publikoa eskuratzeko jasotako eskaerei buruzko daturik garrantzitsuenak erakusten dira.

| | Kopurua / *Número* | Oharrak / *Observaciones* |
|---|---|---|
| Aurkeztutakoak / *Presentadas* | 3 | **Webgunearen bitartez (2) eta aurrez aurre (1) /** *Vía página web (2) y presencialmente (1)* |
| Beste nonbaitera bidalitakoak / *Derivadas* | 0 | **Eratorritakoak dira udal eskumenekoak izanik, edukiari begiratuta Gardentasunari buruzko Legetik kanpo geratzen diren eskariak. /** *Por derivadas se entienden aquellas solicitudes que, siendo de competencia municipal, por su contenido, quedan fuera del objeto de la Ley de Transparencia.* |
| Ez onartutakoak eta arrazoia / *Inadmitidas y motivo* | | |
| Sarbide osokoak / *Con acceso total* | 1 | Gaiak / *Materias:*<br>• **Herritar batek informazioa eskatu zuen Eibarko Kirol Elkarteari Ipuruako estadioa uzteko erabakiari buruz. Eibarko Udalaren eta Eibar Kirol Elkartearen arteko hitzarmena bidali zitzaion, Ipuruako futbol zelaiaren erabilpenari buruzkoa. Epez kanpo erantzun zen**. / *Un ciudadano solicita información sobre el acuerdo de concesión del Estadio de Ipurua a la Sociedad Deportiva Eibar. Se le remite el convenio entre el Ayuntamiento de Eibar y la Sociedad Deportiva Eibar sobrela utilización del campo de fútbol de Ipurua. Se responde fuera de plazo.* |
| Sarbide partzialekoak / *Con acceso parcial* | | |
| Sarbide partzialekoak eta beste nonbaitera bidalitakoa / *Con acceso parcial y derivada* | 2 | Gaiak / *Materias:*<br>• **Herritar batek udal-txakurtegiaren erregistro-liburuari eta kontrol higieniko-sanitarioei buruzko informazioa eskatu zuen. Halaber, informazioa eskatu zuen Administrazioaren jarduteko moduari buruz, arriskutsuak izan daitezkeen txakurrei, animaliak edukitzeko eta babesteko udal-ordenantza ez betetzeagatik egindako arau-hausteei eta** |

| | | |
|---|---|---|
| | | **ezarritako zehapenei dagokienez. Erantzun zitzaion, baina epez kanpo.** / *Una ciudadana solicita información sobre el libro de registro de la perrera municipal y los controles higiénico-sanitarios. Asimismo, demanda información sobre el modo de actuación de la Administración en cuanto a perros potencialmente peligrosos, infracciones cometidas por incumplimiento de la ordenanza municipal de tenencia y protección de animales, así como sobre las sanciones impuestas. Se les responde, pero fuera de plazo.*<br><br>• **Herritar batek Errebaleko obren Gantt diagrama eguneratua eskatu zuen. Gaia Obrak sailera bideratu zen, eta handik pertsona horren eskaerari erantzun zitzaion. Indarrean dagoen araudiak ezarritako epeen barruan erantzun zen.** / *Un ciudadano solicita el diagrama de Gantt actualizado de las obras de Errebal. Se remite el asunto al Área de Obras, quien responde a la petición de esta persona. Se responde dentro de los plazos establecidos por la normativa vigente.* |
| **14.3 artikuluaren arabera ukatutakoak eta arrazoia / *Denegadas según art. 14-3 y motivo*** | **0** | |
| **Ebazpenaren zain / *Pendientes de resolución*** | **0** | |
| **Eskarian atzera egindakoak / *Desestimiento de la solicitud*** | **0** | |
| **Baliogabetutako espedienteak (bikoiztuta) / *Expedientes anulados (duplicados)*** | **0** | |
| **Berraztertzeko errekurtsoa / *Recurso de reposición*** | **0** | |

## 5. Ondorioak

Eibarko Udalak beste urtebetez bete zituen, neurri handi batean, indarrean dagoen lege-esparruak publizitate aktiboari buruz ezartzen dizkion betebeharrak.

2018an bezala, 2019an ere abenduaren 9ko 19/2013 Legeak, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak, eta apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, **ezarritako 59 betebeharretatik 51 bete ziren** ( **% 90,97**).

Bai www.eibar.eus web-orriak, bai Udal Gardentasunaren Atariak (www.eibar.eus/eu/gobernua-zabalik), lege horietan jasotako itemetatik 51ri buruzko datuak eta informazioa ematen jarraitzen dute, aldian-aldian eguneratuta. Hala ere, item horietako askok hobetzeko tartea dute informazioaren argitasun eta soiltasunari dagokionez. Era berean, gaur egun, "Goi-kargudunak eta arduradunak", "Herritarrekiko harremanak" edo "Hirigintza eta obra publikoak" atalei buruzko eduki batzuk eguneratu eta herritarren eskura jarri behar dira.

Bestalde, eta Dyntraren arabera (gobernu, administrazio publiko, alderdi politiko, hautetsi eta gizarte-eragile ezberdinen informazio publikoa modu dinamiko, eraginkor, garden eta irekian neurtzea helburu duen lankidetza-plataforma), **Eibarko Udalak Euskadiko laugarren udalik gardenena izaten jarraitzen du** 2020ko uztailean, **% 85,8ko puntuazioarekin (162 adierazletik 139).** Estatu mailan, rankingean duen egoera hobetzen du 2018. urtearekin alderatuta, **ebaluatutako 490 udalerriren artean 18. postutik 11. postura igaroz**.

Eibarko Udaleko Gardentasun Atariak, www.eibar.eus/eu/gobernua-zabalik atalaren bidez, **5.300 bisita baino gehiago erregistratu zituen gaztelaniaz eta 1.600 bisita baino gehiago euskaraz.**

Gaztelaniazko bertsioan gehien ikusi ziren hiru atalak Goi karguak eta arduradunak, Antolaketa, Plangintza eta Ondarea eta Udal Gardentasun Taldea izan ziren; euskararen atalean, berriz, atal ikusienak Antolaketa, Plangintza eta Ondarea, Gardentasun Adierazleak eta Goi Kargu eta Arduradunak izan ziren.

Bestalde, **Eibarko Udalak informazio publikoa eskuratzeko hiru eskaera jaso zituen 2019an**, eta horietako biri arauzko epetik kanpo erantzun zitzaien, baina benetan eskatutakoaren oso egun gutxiko aldearekin.
Azken bi horiek, alde batetik, Eibarko Kirol Elkarteari Ipuruako estadioa emateko erabakiari buruzko informazio-eskaera bat ziren, eta, bestetik, udal-txakurtegiaren erregistro-liburuari eta higiene- eta osasun-kontrolei buruzko eskaera bat, bai eta Administrazioaren jarduteko moduari buruzkoa ere, arriskutsuak izan daitezkeen txakurrei, animaliak edukitzeko eta babesteko udal-ordenantza ez betetzeagatik egindako arau-hausteei eta animaliak babesteari buruzko arau-hausteei dagokienez.
Datu horiek adierazten dute arindu eta hobetu egin behar direla informazio publikoaren eskaera horiei erantzuteko epeak, eta indarrean dagoen araudian jasotakora egokitu, kalitate handiagoko zerbitzu publikoa eskaintzeko eta herritarren eskaerak asetzeko.

## 6. Bibliografia

• 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. VI. Kapitulua. Gobernu irekia. Gardentasuna, Datu Irekiak eta Herritarren Partaidetza

• 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.

• 4/2014 Foru Araua, otsailaren 6koa, gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeari buruzkoa.

• 128/2016 Dekretua, irailaren 13koa, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearena (EHAA, 177. zk., 2016-09-16).

• EAEko tokiko politikaren kalitate instituzionalaren aldeko jokabide-kodea, gobernu ona eta konpromisoa (Eudel).

• Udal gardentasuna abian jartzeko eta kudeatzeko gida (Eudel).

• Espainiako Nazioarteko Gardentasuna erakundearen udalen gardentasun-indizea (ITA).

• 80 jardunbide egoki udal gardena lortzeko. EUDEL (2004)

• Gardentasunerako ibilbide-orria. Udal gardenagoa eraikitzeko estrategia eta tresnak.

• Gardentasunean ontziratuko gara. Eskifaiaren eskuliburua. Eusko Jaurlaritza. 2016.

• Informazioa eskuratzea, gardentasuna eta datuen babesa (DBEA). 2014.